

**1201 – Ekintza komunikatibo bat gauzatzen irakasteko sekuentzia didaktikoak**

**Leire Diaz de Gereñu  
Ibon Manterola  
Amaia Munarriz**

Ikastaro honetan ahozko eta idatzizko testuen ekoizpena irakasteko sekuentzia didaktikoen diseinua landuko da. HEOC jarraituta, ikuspegi komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia hartuko dira ardatz modura eta testu-generoetan oinarritutako hizkuntzen didaktikaren oinarrietan jarriko da arreta. Langai izango dira testuen eta testu-generoen definizioak eta karakterizazioak, testuen arkitektura, testu-generoen eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoak. Irakasleek ahozko/idatzizko testuen ekoizpena lantzeko sekuentzia didaktikoen elementu batzuk diseinatuko dituzte ikastaroan zehar. Sekuentzia didaktiko horien diseinuan, arreta berezia eskainiko zaio irakasleak ekintza komunikatiboa bideratzeko sortutako kontsignan ezarri diren komunikazio parametroei, hau da, ikaslearen hizkuntza ekoizpena bideratzeko sortutako komunikazio ekintzaren baldintza komunikatiboei.

**Ikasgela ([www.irakasbil.eus](http://www.irakasbil.eus) > NIRE IKASTAROAK)**

**Helburuak**

- Interakzionismo sozio-diskurtsiboaren oinarriak ezagutzea, hizkuntzen irakaskuntzan ikuspegi komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia gauzatzeko alternatiba modura.
- Testuen arkitekturaren trebatzea, testuen ekoizpena irakasterakoan pertinenteak izan daitezkeen alderdi testual-diskurtsiboak eta gramatikalak identifikatu ahal izateko.
- Testu-generoen eredu didaktikoak sortzen ikastea.
- Sekuentzia didaktikoen diseinuan trebatzea, zehazki: ekintza komunikatiboaren eta testuaren arteko uztarketa bideratzen duten proiektu komunikatiboan, jardueren eta ebaluazio formatiborako tresnen sorreran trebatzea.

## **Edukiak**

1. Ikuspegi komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia hizkuntzen didaktikan: testuak eta testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako bitarteko eta helburu gisa
2. Testuen arkitektura
3. Testu-generoen eredu didaktikoen diseinua
4. Ikasleen hizkuntza ekoizpena bideratzeko kontsigna: komunikazio ekintzaren komunikazio parametroak
5. Testu ekoizpenaren irakaskuntza eta ikaskuntza sekuentzia didaktikoen bidez: proiektu komunikatiboen, jardueren eta ebaluazio formatiborako tresnen diseinua

## **Metodologia**

Ikastaroaren hasieran testu-generoetan oinarritutako hizkuntzen didaktikaren oinarri teoriko-metodologikoak landuko dira. Ondorengo lanketek izaera praktikoagoa izango dute eta irakasleek testuen ekoizpena lantzeko sekuentzia didaktikoak sortuko dituzte.